

Herririk herri

Animazioko Goya sarietarako izendatu dute Baleuko ekoiztetxea 'The wish fish' filmagatik > 11



Kirola

Bizkaiko Txapelketako irabazlea Berrizko Ziklo Kross Sari Nagusian erabakiko da zapatuan > 15

“Zutunik eta lanean jaso dut saria”

Bilbotarrek ez zuten besterik behar. Iñaki Azkunak Munduko Alkaterik Onenaren saria jaso du. Azkuna durangarra izan arren, egia ote da bilbotarrak gura duten lekuan jaio direla? > 8



Karabanetarako gunea eraikitzea aztergai > 2

Elorrioko Udalak 3.000 euroko diru atala bideratu du karabanen gunea eraikitzerik badaukaten aztertzeko

Elorrio. Karabana bidezko turismoa bultzatu guran, udalak proiektua aztertzeari ekin dio. 2013ko aurrekontuetan 3.000 euro aurreikusi dituzte lan horretarako. Bilduk martxan jarritako parte-hartze prozesuan irten zela gaia azaldu du Idoia Buruaga zinegotziak (Bildu). “Turismoari bultzada ederra emango dio, eta aldi berean, gure herriko komer-

tzio eta ostalarientzat ere onuragarria izango dela uste dugu”.

Proiektuaren hasiera baino ez da. Oraindino ez dakite karabanetarako gunea zein lekutan kokatuko duten. Dena dela, Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) azaldu duenez, hedabideek albista zabaldu dutenetik hainbat dei jaso dituzte gaiaren inguruko interesa agertuz.



ikastolenelkartea



ESKAINTZA AKADEMIKOA:

- 0-5 urte - HAUR HEZKUNTZA
- 6-11 urte - LEHEN HEZKUNTZA
- 12-16 urte - DBH
- BATXILERGOA - Ibaizabal Ikastolan
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ZERBITZUAK

- Jantokia
- 3 urtetik aurrera: zaintza zerbitzua
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikasturtean eta udan

PROIEKTU PROPIOAK

- Eleaniztasuna
- Eskola 2.0 IKASYS
- Antzerkia
- Euskaraz bizi

Abadiño > 7

Bide segurtasuna hobetzeko batzordea osatu gura dute

Durango > 4

Alluitzeko biribilguneagaz, Durango semaforo barik

Otxandio > 2

Nagusien bizi kalitatea zelan hobetu daitekeen aztertuko dute

Mallabia > 7

Mankomunitateko aurrekontuei ezezkoa eman die Mallabiak

► Herririk herri

> ELORRIO

Karabanetarako eskualdeko lehenengo gunea egin guran

Karabanetarako guneari ekiteko 3.000 euroko partida dauka udalak; 2013ko aurrekontuei begira, Bilduk burututako parte-hartze prozesutik irten zen gai

> **MARKEL ONAINDIA**

Udalak karabanetarako gunea egitea onartu du, eta aurten egitasmo horri ekiteko 3.000 euroko partida sartu du aurrekontuan. Bilduren proposamena izan da, eta EAJ zein PPren babesa jasota egingo du aurrera. Aurrekontuei begira, Bilduk burututako parte-hartze prozesutik irten zen gaia, Idoia Buruaga zinegotziak azaldu duenez: "Hasieratik iruditu zitzaigun ideia ona. Turismoari bultzada ederra eman dio, eta aldi berean, gure herriko komertzio eta ostalarientzat ere onuragarria izango dela uste dugu". Izan ere, proiektu honek turistak erakartzeko ba-

lio ahal du, karabana bidezko turismoa indartzea ekarri dezake. Durangaldean sortzen den lehenengo gunea izango da. "Paisaia zoragarri hauek kontuan izanda, arrakasta izango duela uste dugu", esan du Buruagak.

Egitasmoaren hasiera besterik ez da, eta oraindik ez dakite

Hasiera besterik ez da, eta oraindik ez dakite zein lekutan kokatu ahal izango duten gunea

zein lekutan kokatu ahal izango duten gunea. Koalizioko zinegotziak adierazi du ez dela apartakaleku soil bat. Lo egiteko, ur zikinak botatzeko, ur garbia hartzeko eta argi indarra hartzeko aukera emango luke guneak. "Leku lasai eta laua izan behar da. Herrigunetik gertu, eta posible bada, berdegune batean egon beharko lukeela uste dugu".

Turistentzako bakarrik ez
Azaldu dutenez, ez da turistentzako bakarrik izango. Guneak, herriko zein inguruko karabana zaleei bertan ur zikinak botatzeko aukera emango lieke, esate baterako.



Karabana San Agustingo industrialdean uzten dute herritar batzuek.

Kanpoko igerilekuen plana aurrekontutik aparte utzi dute

Proiektuari buruz herritarrek duten iritzia jakin gura du EAJk; gero erabakiko du egin ala ez

> **M. O.**

Bazirudien kanpoko igerilekuen egitasmoa laster ipiniko zela martxan, baina gobernu taldeak 2013ko aurrekontutik aparte uztea erabaki du. "Krisialdi ekonomikoko sasoi honek zuhurtziarik handiena eskatzen duelako", arrazoitu dute. Berez, igerilekuak Eleizalden egitea aurreikusituen udalak, eta proiektua paperean egiteko partida sortu du. Baina, lehenengo, proiektu hori eta bere bidegarritasun ekonomikoa eza-gutu gura ditu EAJk. Gainera, Kirolaren Plan Estrategikoa eta herritarren iritzia ere kontuan hartu gura ditu. "Ondoren era-

EAJk esan du Bildugaz adostasuna bilatzeko asmoz ere kendu dutela egitasmoa

bakiko da igerilekuen proiektuak aurrera egiten duen ala ez". PPK ere esan du erabaki zuzena dela. Bestalde, EAJk adierazi du aurrekontuen gaian Bildugaz adostasuna bilatzeko asmoz ere kendu dutela egitasmoa.

Bere partetik, Bilduk esan du pozten dela parte-hartze prozesu hori martxan jartzen baldin bada. Adierazi du ez dagoela egitasmoaren kontra, baina herrian kirol mailan dauden premien hausnarketa egin behar dela lehenengo. "Gure ezetza izango zutela jakin zutenean, azken momentuan, diru-atal hori kendu zuten, baina proiektuarekin aurrera egin dute". Koalizioak dio EAJk ez duela euegatz batu gura izan gaiaz berba egiteko. Gainera, uste du EAJk kalkulatu politikoa egin duela: "EAJk egin duen irakurketa honako hau da: jendea kanpoko igerilekuen ideia gustatzen zaio; bada, datorren hauteskundearen aurretik egingo ditugu, eta horrek irabaztea ekarriko digu".

'Bikain' ziurtagiriagaz hobetzen segitu gura dute Txintxirrin

Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen ditu 'Bikain' ziurtagiriak

> **M. O.**

Txintxirri ikastolak *Bikain* ziurtagiria jaso du. Eusko Jaurlaritzak ematen du, eta euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen ditu. Txintxirriko zuzendari Zuriñe Zorrozuak esan du errekonozimendu legeaz ikusten dutela: "Bistakoa da ikastola izanik gure oinarriko ezaugarria dela euskara, bai-

na agiri honek erakusten du hizkuntza-politika ondo zehaztuta izateaz gainera, kudeaketan integratuta daukagula, eta koherentziaz egiten dugula lan".

Zorrozuaren arabera, urratsak egiten segitu gura dute arloz arlo: "Aspaldi hartu genuen Etengabeko Hobekuntzarako bidea; beraz, gure asmoa hobetzen jarraitzea da".



Txintxirri ikastolako ordezkariak, ziurtagiria jasotzeko ekitaldian.

> OTXANDIO

Nagusien bizi kalitatea zelan hobetu aztertuko dute

Herriko nagusien bizi kalitatea hobetzeko ikerketa parte-hartzailea abiatu du udalak. Asmoa da azterketa hori ikuspegi integralaz egitea, hau da, nagusien bizi kalitatea hobetzeari zuzendutako politika guztien gaineko hausnarketa egitea.

Ikerketa urtariletik ekainera luzatuko da. Lau ikerketa eremu identifikatu dituzte: osasuna, komunitatea (belaunaldien arteko hartu-emanak, auto-antolaketa), hezkuntza, kultura eta aisialdia, eta baliabideak. Azken puntu honekin lotuta, gogoan izan behar da udalak nagusien egoitzaren ondoko eraikina erosita duela, eta anbulatorio berria izango den eraikineko bigarren eta hirugarren solairuak ere helburu horietarako bideratu ditzaketela.

Egitasmoa gauzatzeko, ikerlariak eta herritarrez osatutako lantaldea eratuko dute. Gai horretan interesa duten herritarrei dei egin die, prozesuan modu aktiboan parte-hartzeko.

> DURANGALDEA

Euskaldunen sareko lan poltsa aurkeztu dute

www.beharsarea.net/Durangaldea webgunean sartu eta zerbitzua erabilgarri dute interesdunek

> MARKEL ONAINDIA

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen Beharsarea egitasmoan sartu da Durangaldeko Amankomunazgoa. Interneteko tresna honen bidez, euskara dakiten herritarrek euren lan eskaerak egin ahal izango dituzte, eta euskaldunak behar dituzten enpresek ere bertan edukiko du-

te eskaintzak egiteko aukera. *www.beharsarea.net/Durangaldea* webgunean sartu eta zerbitzua erabilgarri daukate dagoeneko interesdunek.

Helburu bi beteta

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek ekimenaren arrazoiak azaldu ditu aurkezpen prentsurrekoan: "Gure herrietan gero eta handiagoa da ostalaritzan, dendatan edota umeak zaintzeko behar diren euskaldunen eskaera. Bestalde, hiritar guztien eskura dagoen tresna bat da, eta bertan zerbitzuak eskaini ahal dira". Gainera, baliabide honek helburu bi betetzen dituztela adierazi du Zarrabeitiak: "Enplegua bultza-

Euskaldunak behar dituzten enpresek ere bertan edukiko dute eskaintza egiteko aukera



Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek aurkeztu du 'www.beharsarea.net/Durangaldea' ataria.

tea eta euskararen erabilera eta normalizazioaren prozesua gartzea".

Webgunea, atal bitan

Atal bitan banatzen da webgunea. *Lana behar dut* atalean, euskara dakien eta lan bila dabilen edozeinek egin ahal du es-

Kasu bietan, formulario bat bete beharko dute zerbitzua erabili gura dutenek

kakizuna. *Jendea behar dut* atalean, ostera, komertzioak edota enpresak dira iragarkia ipintzeko aukera daukatenak. Kasu bietan, formulario bat bete beharko dute zerbitzua erabili gura dutenek. Horrela, zuzenean ipini ahal izango dira kontaktuan alde biak.

Udal ordenantza jarraituz lehen hileta zibila egin dute Durangon

Udal eraikinetan hileta zibilak egiteko ordenantza daukate Durangon eta Iurretan; Zaldibarren eta Berrizen ordenantza barik ere egin dituzte hiletak

> JONE GUENETXEA

Durangaldean, hileta zibilak udal eraikinetan egiteko ordenantza sortzen aitzindaria izan da Durango. 2011ko apirillean, Aralarren ekimenez onartu zuen ordenantza udalbatzak. Hala ere, joan zen urtarrilaren 12an egin zen lehenengo hileta zibila Elkartegiko aretoan. Urte berean, Ezker Batuak bultzatuta

onartu zuen antzeko ordenantza bat Iurretako Udalak. Urte eta erdi igaro den arren, oraindik ez du inork mota horretako ekitaldiaren bat egiteko baimenik eskatu udalean.

Otxandion, hileta zibilak arautzeko prozesuari ekin diotela jakitera eman du Santi Uribe alkateak. Aulestiko ordenantza daukate esku artean herriko beha-

rrizanetara moldatzeko.

Ordenantzarik landu ez duten arren, Zaldibarren liburutegi zaharra edo frontoia aukeratu dituzte baten batek hileta zibila egin gura badu. Jadanik hileta bi egin dituzte.

Berrizen ere, hileta zibil bi egin dira Orland Isoird alkatearen berbatan, protokolo jakinik ez duten arren.



Durangoko Udalak Elkartegia aukeratu du hileta zibilak egiteko.

Okela ere salgai ipini dute 'Oizegin.com' atarian

Oizegin.com Interneteko atariak bere eskaintza zabaltzen dihardu. Kasu honetan, okela gehitu du, Eusko Label zigiluko. Hainbat eratan salduko dute: zankarra, hegala, biribilkia, txuleta... Martitzenetan banatuko dute okela, gainerako produktu freskoekin batera. Arduradunen arabera, okela freskoa eta kalitatezkoa izango da.

Martitzenetan banatuko dute okela, gainerako produktu freskoekin batera

Baserritarren produktuak bitartekaritza barik erosteko webgune hori Urkiola Landa Garapenak ipini zuen martxan, Lea-Artibai eskualdeko landa garapenerako elkartegaz batera.

Arduradunek diote kontsumoa eta ingurunea lotuta daudela: "Bertoko produktuak erostek garrantzi handia du gure ingurua eza gutzen dugun bezala mantentzeko".

> ATXONDO

Axpeko bidea konponduko dute negua amaitu aurretik

> JOSEBA DERTEANO

Axperako bidearen konponketa enpresa pribatu bati esleitzea erabaki du udalak. Lanak ahalik arinen esleitu eta negua amaitu aurretik, bideko zuloak eraberrituta egongo dira.

Iaz auzolanean garbitu zituzen bide bazterrak. Asmoa zen honakoan ere bideko zuloak auzolanean garbitzea, baina eguraldi txarraren eraginez, ezin izan dute era horretan egin. Negua ere ez da auzolanerako sasoirik aproposena, eta ezin dute udaberri arte itxaron Rosa Elizburu alkatearen esanetan: "Bidea hondatzen ari da apurka-apurka, eta negu amaitu arte itxaroten badugu, egoera asko txartu daiteke. Gainera, badakigu zuloengatik autoen gurpilak zulatu izan direla".

Anbotoa soziedadean

Bariku honetatik aurrera, Axpen eta Arrazolan Anbotoko harpidedunak direnek, Anbotoko alea auzo bietako soziedadeetan izango dute eskuragarri barikuro. Anbotoko aleak harpidedunen izenagaz egongo dira.

> DURANGO

Biribilgune berriagaz, semaforo barik geratuko da Durango

Astelehenean hasi ziren Frai Juan Zumarraga eta Alluitzen lotuneko obrak



Biribilgunea egiteko, espaloia altxatuz hasi dituzte obrak beharginak asteen.

> MARKEL ONAINDIA

Argi berdea Frai Juan Zumarraga eta Alluitz kaleen arteko biribilguneari. Astelehenean hasi ziren bidegurutzeko obrak, eta martxorako amaituta egon beharko lukete, zehaztutako epearen arabera. Durangon geratzen diren azkenengo hamalau semaforoak kentzea ekarriko du horrek, baita herrirako sarri garrantzitsuetako bat era-

bi urtez atzeratu duen arren, azkenean burutzea lortu dugu". Udalak 257.730 euroko partida bideratu du biribilgune berria egiteko.

Obarren beharraz

Sozialisten bozeraile Pilar Riosek obraren beharra nabarmendu du: "Durangoko semaforo guztiak kentzea eragingo du, eta inguruko bidegurutzeak ordenatuko ditu, oinezko, bizikletari eta gidarien mugikortasuna hobetuta". Izan ere, biribilguneari eskerrak, Lehendakari Agirre eta Mikeldi kaleetako bidegurutzeetan ere semaforoak desagertuko dira. Riosen arabera, herritarrek irmotasunez egindako eskaera bati erantzun dio obrak. "Ilarek eragindako kutsadura atmosferiko eta akustikoa murriztuko da eta, gainera, jasotako zebrabideei eskerrak, trafikoa lasaituko da".

Rios (PSE-EE): "EAJk obra bi urtez atzeratu duen arren, azkenean burutzea lortu dugu"

berritzea ere. Asteon, Iurreta eta Durango lotzen dituen espaloia altxatzen hasi dira beharginak.

PSE-EE alderdiak prentsa oharra bidali du, gogorarazteko aurrekontuei eurek egindako zuzenketa baten ondorioz garrantzitsua dela egitasmoa. "EAJk obra

Beste alde batetik, Riosek esan du bizikletetarako bidegorriaren zati berri bat egiteko aprobetxatuko dutela.

Urte bikoek ere Haurreskolarako laguntza eskatzea izango dute

Urte biko gelakoak Haurreskolarako dirulaguntzen atalean sartu dituzte

> M. O.

Haurreskolan dabilzan umeentzako dirulaguntza urte bikoek gelara zabaldu dute. PSE-EEK

esan du bere ekimenez atera dela aurrera egitasmoa. "Urte bikoek gelakoak laguntza honetatik kanpo ez geratzeko beharra

ikusi dugu". Horregatik, udalak 18.000 eurotik 28.000ra igo du partida.

Sozialistek azaldu dute otsailean hasiko dela dirulaguntzak eskatzeko epea. 2011-2012 ikasturteetatik egin ahal izango dituzte eskaerak gurasoek. Horrela, 2009an, 2010ean eta 2011n jaiotako umeak izango dira onuradunak.



Haurreskolako laguntzen partida 18.000 eurotik 28.000ra igo du udalak.

Azaldu dute otsailean hasiko dela dirulaguntzak eskatzeko epea

baldiak ere eskainiko dituzte. Esaterako, Lorena Fernandez Deustuko Unibertsitateko adituak Interneteko sare sozialen inguruan egingo du berba. Hartu-emanetarako bide horien arriskuez eta aukeraz jardungo du ikasle, irakasle zein gurasoentzat. Beste ikastetxe batzuetako ikasleak eta gurasoak ere gonbidatuta daude azokara.

Egun osoko egitaraua prestatu dute. Goizean ikasle ohien mahai-ingurua egongo da, eguerdian tailer praktikoetan murgilduko dira, eta 16:00etan unibertsitateen erakustokiak zabalduko dituzte.

16:00etan unibertsitateen erakustokiak zabalduko dituzte

Jesuitak ikastetxeko orientazio azokan sare sozialak berbagai

Bigarren urtez antolatu du San Jose Jesuitak ikastetxeak Unibertsitate Orientazio Azoka

> M. O.

Datorren egunerako Unibertsitate Orientazio Azokaren bigarren edizioa eratu du San Jose Jesuitak ikastetxeak. Batxilergoko ikasleei etorkizuneko aukeren berri ematea dute helburu, eta horretaz gainera, ber-

Ingurumenaz ikasteko eta hausnartzeko azoka antolatu dute

Berdeago ekimenaren eskutik, urtarrilaren 25ean eta 26an izango da azoka, Landako Gunean

> AMAIA UGALDE

Auto elektriko eta hibridoak probatzeko aukera, ludotekan esperimenduak egiteko txokoa, hitzaldiak eta ingurumen arloan dabilzan 40 enpresa baino gehiago... Landako Gunean Ingurugiro Jasangarriaren Euskal Azoka egongo da datorren astelehenetik aurrera.

Berdeago izeneko egitasmoak kideak antolatu dute azoka, eta taldeko Iñigo Peñak azaldu duenez, azokan "gutxiago kontsumitzen ikasi ahal izango da,

ondo pasatuz". Berbaldien artean, energia berriztagarrien gaia eta kutsadurak osasunean duen eragina landuko dituzte.

Kotxe elektrikoak zozketan

Azoka sustatzeko, Berdeago egitasmoak kideak kotxe elektriko bat zozkatuko dute. Kalearik kale ibiliko dira txartelak saltzen. Mondragon Unibertsitatean Ekintzaitza eta Berrikuntza Lidergotza gradua ikasten dabilzan zortzi ikasleak osatzen dute Berdeago egitasmoa.



Berdeago egitasmoak kideak udal ordezkariekin prentsaurrekoan.

KAFETEGI ONENETAN SOILIK

RESERVA PRIVADA

EMAITZARIK BIKAINENA LORTZEKO ESENTZIAREN
JATORRIA BERRESKURATZEN DUGU



Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu

> BERRIZ

“Polizaren kontratua ikusten ere ez digu utzi aseguruak”

Semearen hiletarako laguntza barik geratu dira Mila Basterretxea eta Jose Jurado, aseguru-etxeak sinatutako polizaren tramiteak egin barik zituelako

> AMAIA UGALDE

Santa Lucia aseguru-etxean egindako poliza txarto kudeatu eta semearen hiletarako laguntza barik gelditu direla salatu dute Mila Basterretxea eta Jose Jurado berriztarrek. Erreklamazioak egin dituzte, bai Santa Luciako zentrolean, bai administrazioan.

2011n, Urtzi semea jaiotzeko itzaroten zeudela, aseguru-etxe-ko langile biren bisita jaso zuten

liza egin ahal genuela esan ziguten, eta sinatu egin genuen”.

Iazko urrian, Urtzi hil egin zen, operazio baten osteko komplikazioen ondorioz. Orduan, hileta lotzeko Santa Luciara deituta jakin zuten Urtzi ez zegoela polizan sartuta: “Aurreko gerentziako kideen errua izan daitekeela onartu digute, Durangoko bulegoan iruzur arazoak

izan dituztela eta posible dela eurak tramitatu ez izana”.

2010ean lehenengoz sinatutako polizaren kontratua egundo ez dietela bidali ere kritikatu dute: “Berriztutakoa iraila erdialdera heldu behar zen, teorian”. Azaroan deitu zuten ardura horrekin, eta ez kezkatzeko esan zieten; “eginda zegoela baina denak lanpetuta zebiltzala eta dei-



Jose Jurado eta Mila Basterretxea berriztarrek.

“Aurreko gerentziaren errua izan daitekeela onartu digute; iruzur arazoak izan dituzte”

zerbitzu bat eskaintzen. Umeentzako aurrezki kontu moduko bat zen, eta harekin batera, Urtzi euren polizan sartzea sinatu zuen bikote berriztarrek: “Umea bihotzeko gaitz larri batekin zegoela bagenekien, eta horregatik interesatzen zitzaigun poliza. Urte hartan jaiotzekoa zenez, po-

Adostasunik ez Frankismoaren kontrako mozioan

Argentinan hastekoa den Frankismoaren krimenen kontrako epaiketari babes emateko mozioa eztabaidatzerakoan, ez dute adostasunik lortu osoko bilkuran.

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak aurkeztu du mozioa Bilduren bidez. Testuagaz “esen-

Testuagaz “esentzian” ados daudela diote EAJk eta PSE-EEK, baina testu bateratu bat egingo dute

tzian” ados daudela onartu dute EAJk eta PSE-EEK, baina mozioa aztertu eta Berriz 1936 Gogoratzen elkarteagaz testu bateratu bat sortzea proposatu dute. Bilduk proposamena onartu du: “udala kereila babesteko garaiz ibiltzea espero dugu”.

> IURRETA

Danborrada egingo dute Bakixan, San Sebastian bezperan

Donien atxa jasoko dute gaur, 21:00etan, jaiei hasiera emateko; jarraian, txokolatada egongo da

> AITZIBER BASAURI

Danborrada egingo dute lehenengo biderrez Bakixan, San Sebastian bezperan. Zapatuan, gauerdian egin dute hitzordua gazte eta helduek, Julian Bilbao antolatzaileetako baten berbetan: “Hogeitahiru lagun batuko gara; gaztetxoak 5-6 urte izango ditu, eta nagusienak 66 inguru. Emakume bat izango dugu zuzendari”.

Egundo danborra jo barik, Areatzako lagun talde bat azaldu da erakusteko prest, eta danborrak ere utzi dizkiete: “Hiru bat entsegu egin ditugu, eta polito aritu gara”, dio Bilbaok. Datozen urteetan ere ekimenarekin jarraitzea espero dute. “Gaztetxoak ilusioagaz daude; oso pozik gaude ideiak izan

duen harreragaz”. Praka bake-roak, alkandora zuria eta txapel zuria jantziko dituzte hitzordurako.

Bakailao txapelketa

Gaur hasiko dituzte jaiak donien atxa igo eta txokolatea jenez. Bihar, berriz, danborrada ez eze, tiro eta bakailao txapelketak egongo dira; 11:30etan eta 21:00etan, hurrenez hurren. Etzi, kalejira izango da meza aurretik, eta gero, Durangoko eta Iurretako bertsolari gazteak arituko dira, bai eta trikitilariak ere. Briska txapelketa, dantzariak eta umeentzako jolasak izango dira 17:00etan. Luhartzen erromeria, dantzarien saioa eta asto probak utzi dituzte datorren astebururako.

> IZURTZA

Errekastoek gainez egin dute mantenu faltagatik

Euriteen ondorioz, errepidea azpitik zeharkatzen duten errekasto bik gainezka egin dute Eleizalden

> JOSEBA DERTEANO

Martitzeneko euriteen eraginez, BI-623 errepidea azpitik igarotzen duten errekasto bik gainezka egin zuten Eleizalde auzoan. Ondorioz, ura errepide barruan pilatu zen, bai eta inguruko hainbat etxetako atarrietan ere: Baiona, Iturriaurre eta Markos etxeetan, esaterako. Errepideen zaintza eta mantentze lanak Aldundiaren ardu-

ra dira, eta Luis Ballarin alkatearen esanetan, “azkenaldian ez dituzte errekastoen ubideak garbitu”. Horren aurrean, udalak gutun bat bidali du dago-kion sailera, tarte horretako ubideak garbitu ditzaten eskatuz. Era berean, belardi batzuk ere urez bete zirenez, Ura agentziari errekastoen ubide osoaren garbiketa eskatu diote beste gutun baten bidez.



BI-623 errepideko tarte bat urak hartuta, Eleizalden, euriteen ondorioz.

> MAÑARIA

Liburutegiko txartela berritu beharko dute erabiltzaileek

> MARKEL ONAINDIA

Liburutegia kultur etxera lekuz aldatuko du udalak otsailan, egindako aurreikuspenen arabera. Horregatik, erabiltzaileei txartel berria egiteko eskatu die udalak. Liburutegian bertan orain arte erabilitako txartela aurkeztu behar da, NAN agiriagaz batera. Hainbat abantaila edukiko dituzte txartela berrituta. Izan ere, Euskal Liburutegi Sare Nazionalaren Internet bidezko zerbitzua erabili ahal izango dute horrela. Liburuen maileguak luzatu edota dokumentuen erreserbak egitea posible izango dute www.euskadi.net/katalogo-bateratua atarian sartuta.

Liburutegi berria kultur etxeko lehenengo solairuan egokitzen dabilta, eta otsailaren erdialderako prest egotea aurreikusi dute udal arduradunek.

Liburutegia kultur etxeko lehenengo solairuan egokituko du udalak

> DURANGALDEA ASTEON**Etxebizitzen berritzea aztergai San Fauston**

San Faustoko bizilagunek batzarra izan dute Durangoko Udalarekin, etxebizitzaren berritzapenaren inguruan egingo den azterketari buruz informatzeko. Helburua da jarraibideak eta aukerak zehaztea, betiere, auzokideen bizi kalitatea hobetzeari begira.

Maeztu eta Aristegi hizlari Durangoko Pinondo Etxean

EH Bilduk hitzaldia antolatu du urtarrilaren 24rako, 19:30ean, Durangoko Pinondo Etxean. Dani Maeztu eta Maite Aristegi izango dira hizlariak, eta "Krisiaren aurrean zer? Irtenbidea badago, burujabetza eta eraldaketa soziala" izango du abiapuntu hitzorduak.

Emakume bat harrapatu du auto batek Mendiolan

Atzo, goizeko 07:15ean gertatu zen istripua, N-636 errepideko Mendiola auzorako bidegurutzean. Autoak harrapatutako emakumea, 61 urteko abadiñarra, Galdakaoko ospitalera eroan zuten jarraian. Istripuaren ondorioz auto ilarak sortu ziren, baina 08:00etarako egoera "normala" zen.

Zapatu goizetako ludotekan izena emateko epea zabaldu dute Abadiñon

Abadiñoko zapatu goizetako ludotekan izena emateko epea zabalik dago urtarrilaren 31ra arte, euskara@abadino.org helbidera idatziz edo 946215535 telefonora deituz. Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, eta helburua da, euskara eskolaz kanpo normaltasunez erabiltzea bultzatzea. Udalak jakinarazi duenez, taldeak eginez gero, Zelaietan zein Traña-Matien eskainiko da ludoteka zerbitzua.

> MALLABIA**Mankomunitateko aurrekontuen kontrako botoa eman du udalak****> JONE GUENETXEA**

Debabarrenako Mankomunitatearen aurrekontuen kontrako botoa eman zuen Mallabiko Udalak urtarrilaren 2ko ohiko bilkuran. Mutrikuk, Debak eta Mendarok ere ezezkoa eman die. Mila Mondragon alkateak azaldu duenez, abenduaren 27an eta 28an bidali zieten dokumentazio guztia: "Aurrekontuen onarpena 15 egun atzeratzea eskatzen genuen dokumentazioa ondo aztertzeko". Mondragonek gaineratu duenez, hondakinak gaika biltzeko bideragarritasun plan bat egin du Spora enpresak eta emaitzak jakin gura zituzten, "zein inbertsio egin argituko zizulako". Debabarrenako Mankomunitateak 11 milioi eurotako aurrekontua du eta %9 inbertsioetarako da.

> GARAI

Urtero legez Lazaro Milikuak zuzendu zuen Erremata.

Hotzari aurre egiteko jakiak Errematan

Guztira, 1.200 euro batu zituzten atzoko enkantean, eta ongintzara bideratuko dute

> MARKEL ONAINDIA

Eguraldia onena izan ez arren, 40 bat lagun batu ziren atzo, San Anton egunez, Garaiko Errematan. Lazaro Milikuak zuzendu zuen enkantea, produktuak banan-banan aurkeztuta. Gazta eta irasagarra eskutan, irasagarra kolorante eta kontserbante bakoa zela esan zuen. "Hori ez da baserrikoa izango, orduan!", txistea egin zuen lagun batek publikotik. Baina, produktu gehienak baserrikoak izan ziren: esnea, ogia, porruak, txorizoa, babak... Aste honetako eguraldi heze eta hotzari aurre egiteko, tripa ondo betetzeko moduko jakiak eskaini zituzten. Tradizioak dioen legez, bertaratutako jendeak

eroandakoak. Loteriarako txartela ere eroan zuten batek.

Giro alaian egin zuten apustu lagun zein familiako kideen artean. Untxi pareagatik 50 euro eman zituen batek, eta tostadak lortzeko lehia 60 euroan amaitu zen. Guztira 1.200 euro batu zituzten enkantean, eta ongintzara bideratuko dute diru hori. Datorren urtean ere izango du segida tradizioak.

Untxi pareagatik 50 euro eman zituen batek, eta tostadak lortzeko lehia 60 euroan amaitu zen

> ABADIÑO**Errota kultur etxeko hirugarren solairua itxi dute itoginengatik**

Itoginak konpontzeko lanak burutzeko itxi egin behar izan dute Traña-Matienako Errota kultur etxeko hirugarren solairua. Haurren eta helduen liburutegiak, ikasketa gela eta ordenagailuen gela daude hirugarren solairu horretan.

Jose Luis Navarro alkateak "atsekabea" adierazi du itxierak kultur etxearen erabiltzaileei eragingo dizkien eragozpenengatik, baina obra egitea "ezinbestekoa, oso beharrezkoa" dela ere azpimarratu du.

Alkateak jakinarazi duenez, 188.000 euroko gastua izango da udalarentzat itoginak konpontzea. Gobernu taldeak dioenez, Errota kultur etxea eraiki zuen enpresari erantzunkizuna eskatuko dio udalak: epaitegietarajoko du obra burutu ostean.

Bide segurtasuna hobetzeko batzordea osatu gura dute

Iñaki Lejarreta txirrindulariaren heriotza ekarri zuena lako istripuak ekiditea dute helburu

> ITSASO ESTEBAN

Abenduko udalbatzarrean Eneko Etxebarria EAJko zinegotziak mahaigaineratu zuen bide segurtasunari buruzko batzorde bat sortzeko beharra.

Iñaki Lejarreta txirrindulariaren heriotza ekarri zuena bezalako istripuak ekiditeko, udalak eskura duen guztia egiteko konpromisoa hartuko du batzorde horretan.

Eneko Etxebarriak azaldu duenez, oraindik ez dute udalean gaia eztabaidatzeko aukerarik izan, eta hurrengo Hirigintza batzordera eroango du gaia. Hala ere, sortuko den batzordean parte hartzeko baie-

koa eman du, dagoeneko, David Etxebarria txirrindulariak. Herriko errepideetako puntu beltzak, arriskutsuenak, identifikatzea izango da batzorde horren lehenengo egitekoa, beharrianak zehaztuko dituzte ondoren, eta egin beharrekoen agenda osatu, gero.

David Etxebarriak baiezkota eman du sortuko duten batzordean lan egiteko

> ZALDIBAR**Ikurriñaren alde batu ziren udaletxeko plazan****> I.E.**

Hainbat zaldibartar batu ziren zapatuan, udaletxean Espainiako bandera ipintzeko agindua gaitzesteko.

Udal gobernu ordezkariak, aurreko legegintzaldietan zinegotzi izandako hainbat lagun,

eta herritarrak batu ziren ekitaldi hartan.


'Inposaketarik ez, Zaldibarren geurea ikurriña' leloaren bueltan elkartu ziren kontzentrazioan, eta udaletxeko plazako mastan ikurriña ipini zuen Arantza Baigorri alkateak.



Eguno udal ordezkariak, zinegotzi izandakoak eta herritarrak batu ziren. D.Z.

▶ Berbaz

IÑAKI AZKUNA | Durango, 1943 | Bilboko alkatea



“Nire zuztarrak Anbotopean daude, baina nire espiritua Artxandara begira”

Iñaki Azkuna Bilboko alkateak Munduko Alkate Onenaren saria jaso du City Mayor fundazioaren eskutik; azaldu dutenez, gainbeheran zegoen hiri industrialaren arte eta turismo gune bilakatu duelako eta kudeaketan izan duen transparentziagatik eman diote saria

► JONE GUENETXEA

Australia, Indonesia, Kanada eta AEBetako alkateekin lehiatu ostean, City Mayor Fundazioak Iñaki Azkunari eman dio 2012ko Alkate Onenaren saria. Bilbon 13 urte daroaz alkate, baina jaiotzez durangarra da. Laudorioak zein kritikak jasotzera ohi-tuta dago. Hala ere, urte gogor bat gozatzera dator saria. 2012an ebakuntza egin zioten minbiziari aurre egiteko, eta urte horretan bertan emaztea galdu zuen. Durangaldek deitu eta prestu agertu da galderei erantzuteko.

Zelan jaso duzu Munduko Alkate Onenaren saria?

Zutunik eta lanean, horixe baita sariak jasotzeko modurik onena.

Batzuek diotenez, Bilboko alkatea izatea eta munduko alkate onena izatea erreduantzia da.

Gogoratu Unamunok zioena: “Mundu osoa Bilbo handiago bat da”.

“

Alkate batek zintzotasuna, hurbiltasuna, konpromisoa eta borondateak batzeko gaitasuna izan behar ditu”

“

Beti onartzen ditut argumentuekin egindako kritikak, baina ez irainak eta fede txarrez egindakoak”

Urte gogor baten ostean, sari hau jasotzea motibagarria izan da maila pertsonalean, ezta? Zalantza barik, baina batez ere, momentu onetan eta txarretan jaso dudana maitasuna da motibagarria.

Zein osagai batu behar ditu alkate on batek?

Zintzotasuna, hurbiltasuna, konpromisoa, eta borondateak batzeko gaitasuna izan behar litzuke.

Politikarienganako iritzi txarra zabaltzen dabilen sasoi honetan, honelako sari bat irabaztea ohorea izango da.

Pena bat da normala izan behar litzatekeena ezohikoa iruditzea.

13 urte daramatzazu udaletxearen buru. Zelan aldatu da Bilbo urteotan?

Alkate moduan sartu nintzeanean, Euskalduna Jauregia inauguratu berri genuen. Oraindik metroaren bigarren linea falta zen, Abandoibarrako paseoa, Isozaki dorreak, Iberdrola do-

rra... Gizarte moduan ere asko aldatu gara. Orain, Bilbon kosmopolitagoak gara esango nuke.

Zeintzuk dira Bilbok datozen urteetan izango dituen erronkak?

Lehenik eta behin, krisitik irteeta. Udaletik ahalegin guztia egingo dugu inbertsioak erakartzeko, eta munduan gure oihartzuna entzuten jarrai dezaten. Hiriko proiektuen artean, Zorrotaurreko penintsula irla bihurtzearen aldeko apustua egingo dugu. Talentu, ezagutza eta berrikuntzaren gune bilakatu da.

Krisi sasoiaren, zelan asmatu hiri handi bateko udal batek zorrik izan ez dezan?

Zuk eta nik geure etxean egiten dugun legez, oparoaldiak aprobetxatuta zor duguna ordaintzen joateko.

Munduko Alkate Onenaren saria jaso zenuela jakiteagaz batera, sare sozialak sutan jarri ziren. Kritikak eta laudorioak jaso dituzu. Kukutzaren itxieragatik

eta txinatarren bazareen inguruan esandakoengatik kritikatu zaituzte. Zelan jasotzen dituzu kritika horiek?

Gobernatzea erabakiak hartzea da. Batzuetan ez da erraza denak pozik uztea. Beti onartzen ditut argumentuekin egiten diren kritikak, baina ez irain eta fedetxarrez egindakoak.

Hainbeste urte Bilboko alkate izanda, nongoa sentitzen zara: bilbotarra ala durangarra?

Kastizok esaten duten moduan, bilbotarrak gura dugun lekuan jaiotzen gara.

Saria lortzearen, jaso al duzu zorionik Durangotik?

Durangotik eta mundu osotik jaso ditut sariarengatik zorion mezuak.

Zuretzako zer da Durango? Nola gogoratzen duzu jaioterria?

Durango nire umetako agertokia da, nire ‘sentipenen aberria’, Unamunok esango zukeen moduan. Nire zuztarrak Anbotopean daude, baina nire espiritua Artxandara begira.



Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendaria eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

www.hotelharrison.com

hotelharrison@hotelharrison.com

Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako afaria eta alojamendua zozketatuko ditugu

Nor izendatu dute munduko alkaterik onena?

ERANTZUNA: zozketa@anboto.org-ra edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

Emakumeen txirrindularitza

Penintsulan antolatzen diren emakumeen nazioarteko bi proba bakarren antolatzaileenganako erruki gutxi erakutsi du UCiK.

Izan ere, Durangoko Emakumeen Saria eta Iurretako Emakumeen Bira antolatzen dutenek 2013ko aurre-egutegi bat jaso zuten iazko maiatzean, eta haren arabera, lasterketa bi horiek aurreikusten ziren ekainerako, eta ez zetozen bat nazioarteko beste inolako probekin.

Hala eta guztiz ere, urrian konfirmatu zuten egutegi ofiziala, eta aze ustekabea! Zur eta lur geratu ziren sasoi bertsuan beste bi lasterketa eta HC probako beste kategoria berri bat ere bazeudela ikustean.

Proba horietako bat Exergy Tour da, eta AEBetan antolatuko dute. Kasualitatez, sortu berri den kategoria horretan sailkatzen da lasterketa hori, eta horrek esan gura du, punta-puntako talde guztiek proba horretan parte hartuko dutela, txirrindulari onenekin gainera. Eta jakina, begi-bistakoa denez, euskal proba bien kalterako izango da.

Bai Durangoko Txirrindulari Elkarteak, bai Iurretako Emakumeen Birak gutuna bidali diote UCiK, egoera bidegabe hori salatzen. Bidegabea da, batez ere, kontuan hartuta zenbat urte daramaten lan eta lan emakumen pelotoirik onena lortzeko eta Espainiako panorama kaskarrean bakanak diren proba horiek antolatuta ahal izateko (bata, egun bateko klasika, eta bestea, etapetako proba).

Hori dela eta, ez dute beste erremediorik izan, eta hemengo proben datak alda ditzatela eskatu dute. Oraindik konfirmatzeko daude, baina Durangokoa maiatzaren 21ean izan liteke, eta Bira hilabete bereko 23an, 24an, 25ean eta 26an. Antolatzaileek datozen egunotan jakingo dute zehatz zein diren datak.

Urte Berriak ezer berririk ez!

Joan zen asteko *Anboto* astekarian Lupetza tabernak kaleratutako egutegiaren inguruan dugun iritzia, leku faltagatik laburtuta agertu zen. Asteon, gai honen inguruan egin dugun hausnarketa osoa kaleratzea gurako genuke.

Beste behin ere urte berriak ez du ezer berririk ekarri! Oraingo honetan, Durangon aski ezaguna den Lupetza kafete-giaren eskutik egutegi bat heldu zaigu. Egutegiari buelta eman eta irudian, lapiko batean sartuta, izugarritzko bularrak dituen emakume argal, ilehori, begi urdindun bat jarrera pasiboan agertzean da, bera lapikoan egosten ari diren tribu bateko bi kanibalen janaria balitz bezala, haragi puska huts baten eran.


Irudi horretan, estereotipo etnikoak indartzeaz gain, estereotipo sexistak irauarazten dituzte, emakumeak objektu huts bat bezala tratatuz. Baina zoritxarrez, hau adibide bat besterik ez da, urte osoan zehar horrelako iragarkiz josirik baikaude. Hala ere, pasa berri dugun Gabon garaian, salmentek gora egitea helburu izanik, badirudi publizitate sexistaren presentzia areagotu egiten dela, eta horren adibide argiak dira jostailuak, lurrinak, bitxiak, eta abar saldu nahi dizkiguten iragarkiak.

Publizitate sexistak, jendarte heteropatriarkal honen isla den heinean, rola birproduzitu eta aldi berean sustatu egiten ditu. Horregatik, diskriminatzaileak eta sexistak diren iragarri, produktu, jarrera, eta abarren aurrean, kritikotasuna, horrelakoak ez onartzea eta erantzutea eskatzen dugu.

Egunerokotasunean eredu zapaltzaile eta baztertzaila hauek desagertaraztea guztion erantzukizuna da!

Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak

Txoko feminista



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL BOLINAGA

Bildu



Noiz arte?

Urte berrian sartuta gaude, hori dela eta lehendabizi urte berri ona opatzeko aprobeztatuko dut. Espero dut iazko urtea baino hobea izan dadila denontzat, 2012a jende askorentzat urte oso gogorra izan baita.

Harira sartuz, esan beharra daukat oso harrituta nagoea PNVren jarrerarekin, gauza asko ez baitituzte ulertzen. Hasteko, ez dut ulertzen nola abertzale izanda, paso egiten duten Nafarroaz eta Ipar Euskal Herriaz. Agian toki horietako emaitza elektoralak ikusita (ez dute ezer lortzen) hobeto ulertzen da.

Ez dut ulertzen nola abertzale izanda, Espainiako legedia betetzen duten, horrek ekartzen digunarekin (dirua Espainiari oparitzea, ilegalizazioak ...) gure legedia propioa osatu beharrean. Agian benetan ez dute nahi Euskal Herriak bere etorkizuna erabaki dezan, azken ia 40 urteetako saltsa honetan (hildakoak, kartzelaratzeak ...) emaitza elektoral oso onak lortu baitituzte 34 urtez euskal gobernuan egonda.

Ez dut ulertzen nola abertzale izanda, hobe konpontzen diren PP eta PSOEekin, eta aldez, euskal alderdiak (EA, Aralar, ezker abertzalea ...) areriotzat hartzen dituzten. Agian alderdi hauek direlako hauteskundeak irabaztea kolokan jartzen diena.

Ez dut ulertzen abertzale izanda, bakegintzari dagokionez, bizi dugun momentu honetan nola ez duten bat egiten pasa den larunbatean Herrira plataformak deituriko manifestazioarekin (euskal alderdi bakarra izan zen). Gainera, isileko lana egiten ari direla diote ETA erakundeak informazio hori gezurra dela esan duenean. Agian izan daiteke, lehen aipatu bezala azken urteetako saltsak jarraitzea komeni zaielako, hauteskundeetan garaile irituten baitira.

Edozein iruzurrek denbora tarte konkretu bat irauten du eta PNVri bere benetako aurpegi ikusten ari zaio. Hauteskunde-soilik arduratzen dira, eta berdin zaie zein prezioetan. Noiz arte?

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
 komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
 48215-Iurreta
 (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 65 58
 Erredakzioa:
 94 623 25 23
 Publizitatea:
 94 621 79 02
 publi@anboto.org

2013ko urtarrilaren 18a
 11. urtea - 485 zk.

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
 Joseba Derteano
Administrazio burua:
 Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
 Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
 Aitor Lopez.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
 Itsaso Esteban, Markel Onaindia,
 Amaia Ugalde, Ane Elordi.
Maketazioa:
 Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
 Argazkilariak: Kepa Aginako,
 Zalao Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> ELKARRIZKETA

Animazioko Goya saria eskuratu dezake Baleukoren 4 urteko lanak

Martxoan estreinatu zuen Durangoko Baleuko ekoiztetxeak 'The wish fish' filma. Espainiako Zinema Akademiak ematen dituen Goya sarietan animazioko lanik onenaren saria jasotzeko izendatu dute



> ITSASO ESTEBAN

Animazioko lanik onenaren sarirako izendatu dute Goya sarien 27. edizioan Baleuko ekoiztetxearen *The wish fish*, *El corazón del roble*, *Las aventuras de Tadeo Jones* eta *O Apóstolo* pelikulekin lehiatuko da. Otsailaren 17an Madrilen banatuko dituzte sariak.

Zientzia fikziotik eta road-movietik ere badauka *The wish fish* lanak, eta Opil da protagonista: arraina jatea gorroto duen umea.

Kalitatezko elikadura bultzatu gura du filmak, eta intenzio hezitzaileko mezua edukitzeaz gainera, abentura dibertigarria ere bada.

Lau urteko lana burutu dute Baleukok eta Indiako Image Venture taldeak: hiru milioi euroko aurrekontuagaz, eta 80 langileguz.

2012ko martxoan estreinatu zuten, eta Goya sariketarako izendapenak berriro zinema aretoetara ekarriko du, segurutik, *The wish fish*.

Otsailaren 15ean, ostera, beste lan bat estreinatuko du Baleukok: *Blackie eta kanuto*.

«Kanpora ateratzeko ezinbestekoa da bertako erakundeen sostengua»

Idurre Cajaravillek eta Eduardo Barinagak egin dute filmaren produkzio lana

Zer lan egin duzue bakoitzak?

Idurre Cajaraville: Esparru berean egin dugu biok lan: produkzioan. Produkzio arduraduna naiz ni, eta filmaren produktorea Eduardo.

Zelan sortu zen ideia?

Eduardo Barinaga: Beti ahalagindu gara gure animazioko proiektuetan kontzeptu bi gartzen: balioak transmititzea eta dibertitzea. Hamar luzemetrai egin ditugu, eta erakutsi, erakutsi dugu posible dela balioak transmititu eta ume zein familliei ondo pasaraztea.

Zer balio lantzen ditu *The wish fish* lanak?

E.B.: Umeak arraina jatera bultzatu gura ditu argumentuak, elikadura orekatua sustatzea. Nekazaritza sailarekin garatzen genbiltzan bestelana baten harira sortu zen lan honetarako ideia.

Nazioarteko elkarlanean jardun izan duzue proiektu honetan.

E.B.: Baleukoren bokazioa da koprodukzio internazionalak

bultzatzea. Aukera bezala ikusten dugu hori. Kasu honetan, Indiarekin kopoduzitu dugu lana: Image Venture taldeagaz. Oso animatzaile eta sortzaile onak dauzkagu Euskal Herrian, eta gure ekoizpenak munduan zabaltzeko gai gara: duela gutxi, Olentzerori buruzko lau filmak saldu genituen Errusian.

“

Hamar luzemetrai eginda, erakutsi dugu posible dela balioak transmititu eta ondo pasaraztea”

Lantalde euskaldunak garatu du ideia, baina?

E.B.: Ideia, kreatibitatea eta gidoia Euskal Herrian sortutakoak dira, bai. Indian produzitu dute, bestalde, filmaren animazioa, eta musika.

Badago hemen proiektuak garatzeko laguntza nahikorik?

I.C.: Oso positiboa da koprodukzioa eta nazioartera zabaltzea, eta aukera bezala ikusten dugu, koordinazio lana zaila den arren. Horrek ez du kentzen, baina, gure ordezkari eta erakundeei laguntza gehiago eskatzea. Iruditzen zaigu kultura eta artea egiten dugula, eta gainera, industria bat sortu dugula, langileak dauzkagula. Uste dut laguntzak falta direla.

E.B.: Kanpora ateratzeko, ezinbestekoa da bertako erakundeen sostengua edukitzea, hori barik oso zaila, ia ezinezkoa, da atzerriera ateratzea.

Kasu honetan, eduki duzue etxean laguntasuna, ezta?

I.C.: Bai, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Nekazaritza sailen babesa eduki dugu, ETB proiektuaren koproduktorea da, eta TVE-k emisorako eskubideak eskuratu ditu.

E.B.: Durangon sortutako proiektu bat munduan zehar ibiliko da horri esker.



Bulegoan daukate 1998an jaso zuten Goya saria.

Zer dakar Goya sarietarako izendapenak?

I.C.: Oso garrantzitsua da merkatura joaten garenean curriculum osotua edukitzea. Goya bat eduki badaukagu, nazioartean sari ezaguna da, eta horrek gure lana saritzen du. Hirugarren aldiz nominatu gaituzte, eta badauka guretzat garrantzia.

Zer aukera dauka *The wish fish* filmak?

E.B.: Ez dut uste irabaziko dugunik: *Tadeo Jones* da faboritua.

Zer dauka zuenak alde?

E.B.: Oso maila altuko animazioa dauka *The wish fish*-ek, eta abentura ondo eginda dago, erakutsiz eta dibertituz.

> ANTZERKIA

'Makinista' ikuskizun berria gaur estreinatuko du Markeliñek

Zornotza Aretoan eskainiko du Markeliñek "sistemari autopsia" egiteko lana



> I.E.

Antzezlanak pentsatu eta prestatzen dituen lekuan bertan, Zornotza Aretoan, estreinatuko du Markeliñe taldeak *Makinista* ikuskizun berria. Azaldu dutenez, orain arteko lanekin bezala, esperientzia plastiko eta eszenikoa eskainiko die Markeliñeren ikuskizun berriak ikusleei. 2011n sortu zuten *Anomalia magnética* kaleko antzezlanaren aretorako moldaketa da *Makinista*.

Gizateriaren jatorria ezagutzeari zein identitateari buruz-

ko gogoetak biltzen ditu obrak. "Sistemari autopsia" egingo diote gaur gauean Zornotzako estreinaldian: bisturia hartu, eta "inguratzen gaituen ustel sentsazioaren jatorria ulertzen saiatu-

"Inguratzen gaituen ustel sentsazioaren jatorria ulertzen saiatuko gara", diote sortzaileek

ko gara", diote. Musika eta argiak ere bereziki landu dituzte.

Umeentzako asteburukoak

Durangaldean beste emanaldi bat ere izango du Zornotzako Markeliñe taldeak asteburuan. Urtarrilaren 20an, *Hareazko ipuinak* antzezlan eskainiko dute Durango San Agustinen 6 urtetik gorako umeentzat.

Iaz sortu zuen Markeliñek haurren minbiziari buruz sentsibilitate handiz diharduen antzezlan hau: alaba gaixorik daukan aitaren paperean dihardu Jon Kepa Zumaldek.

Asteburu honetan baita, baina Elorrioko Arriolan, umeentzako sortutako *Printzea eta ahatea* eskainiko du Abadiño Gorakada taldeak. Domekan 17:00etan eskainiko dute laguntasunari buruzko *Printzea eta ahatea*.



GEURE DURANGALDEA

IÑAKI ETXEZARRAGA

Musikaria



New Yorken ere euskeraz

New York, lo egiten ez duen hiria. Bisitatu beharreko hiri izugarria. Hotelera iritsi eta parean, Madison Square Garden, The World Most Famous Arena!

Hori izan zan bisitatu gendun lehen tokia. Eta nola ez, bertara zerbait ikustera joatea derrigorra zan. Gerturatu, karteldegira begiratu, eta: "Beittu, gaur ta bixer Madonnak jotzen dau. Ia sarrerak dauzen".

Lehen dolarrak gastatzeko prest leihatilara gerturatu ginen gure ingles justuarekin. - "Tickets for Madonna for today or tomorrow?" - "Yes. For today only 175\$ tickets" (garesti samar...) - "And tomorrow?" - "50\$ cheapest".

Ezin aukera hau galdu! 40\$ inguru Madonna ikusteko!

Hurrengo egunean han ginen berriz The Gardeneko ateetan. Ingurura begiratu eta, "Wow!". Jendez beteta eta eszenatoki izugarria, gure aulkiak eszenatoki ondoan...

Denbora luzez zain egon ondoren, han agertu zan poparen erregina. Kantuak bata bestearen atzetik, eta koreografia ederrak. Eta bat-batean hiru musikari berezi agertu ziren.

- "Txalaparta da?" Eta konpas batzuk igaro ondoren...

"Aldapeko sagarraren adarraren puntan..."

Ezin gendun sinistu munduko antzoki famatuenean poparen erregina euskeraz abesten ari zala. Ezin leike azaldu sentitu genduana. Eskerrak Madonnari euskal talde bat ikuskizunean sartzeagatik eta Kalakari gure kultura munduan zehar edatzearen.

> ZINEMA

Eneko Sagardoy aktorea Euskal Bobina Sarietan

Zine munduko profesional euskaldunak saritu gura ditu Interneteko 'www.cinevasco.com' atariak

> AITZIBER BASAURI

Euskal Bobinak sarietarako lehenengo ediziorako hautatu dute Eneko Sagardoy aktore durangarra. Aktore onenaren saria eskuratzeko hautagai izendatu dute Goenkalen lanean diharduen Eneko Sagardoy.

Zine munduko profesional euskaldunak saritu gura ditu

www.cinevasco.com webguneak bere lehenengo urteurrenean. Urtarrilaren 18an egingo dute sariak emateko ekitaldia.

Durangoko Karrika antzerki taldean eman zituen Eneko Sagardoyk lehenengo pausoak. Harrezkero, hainbat antzezpenetan parte hartu du Sagardoyk, antzerkian zein zineman.



Durangaldeko Baserritarren Elkarte



- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS
Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: **94 621 54 04**



> ERAKUSKETA

«Kontrolatzen ez dudanagaz, zoriagaz jokatzea gustatzen zait»

21 artistaren lanak biltzen ditu Durangoko Museoa zabaldu duten 'Ibillgonia' erakusketak. Fernando de Vicenteren (Durango, 1965) koadro bat, tartean

> ITSASO ESTEBAN

Durangoko Museoko erakusketan antolatzen ibili zara, ezta?

Bai, baina besterik barik ni bertakoa naizelako aritu naiz horretan. Aurretik egin ditugun erakusketetan ere, bilduma ipintzen den lekutik hurbilen bizi denak hartzen du ardura. Dena den, muntaian, esaterako, Bigen de Pedrok ere jardun zuen.

Nola sortu da *Ibillgonia* erakusketak kolektiborako aukera?

Beittu Art Galeria martxan ipini genuenean ezagutu nituen lagun horietariko gehienak. Euren denbora gehiago zeramaten Deba inguruan elkartzeko, baina orduan batu nintzaie ni.

Zerk batzen zaituzte?

Denok dihardugula artearen inguruan lan egiten, eta denok daukagula, zaila izan arren, artea deitzen dugun hori egiten jarraitzeko grina. Ia dena kontra eduki arren, horretan segitzen dugu. Hurbiltasun geografikoak ere batu gaitu.

Zer ideiarekin sortu zenuen erakusketara ekarri duzun lana?

Hainbat teknika baliatzen ditut bata bestearen gainean: hainbat tinta, geruza eta disolbentea erabiltzen ditut, esaterako, eta sikatzeko denean, tiraka kentzen ditut margo zati batzuk... Hainbat geruzak osatzen du lan bakoitza. Harritu egiten zaitu horrelako metodoaz sortutako artelanak: emaitza ikustean, badirudi ez duzula zuek egin, nahi gabe ateratakoa dela, eta oso gustuko dut hori. Kontrolatzen ez dudu-

nagaz, zoriagaz, jokatzea gustatzen zait: oihala lurrean ipini eta pintura poteak botata ateratzen dena ikustea, esaterako.

Koadroaren izenburua ere berezia da: 'Ez duzu zure aita oso aldatua topatuko'.

Badirudi egileek irudia irakur-

“

Zentzu batean, arteari ondo dator kio krisia: eztabaida eta gogoetarako sasoi da”



Fernando de Vicente, 'Ez duzu zure aita oso aldatua topatuko' izeneko bere koadroa erakusten.

tzeko jarraibideak ematen dituztela batzuetan koadroen izenburuetan, baina nire kasuan, beharbada harrigarria gertatu daitekeen beste elementu bat gehiago da izenburua, zoriaren menpekoea baita. Kasu honetan, liburu batetik hartutako aipua da izenburua.

Beste artistek erakusketara ekarri dituzten lanei buruz, zer azpimarratu gura duzu?

Aipagarria da, esaterako, arte-lanak egiteko teknika klasikoak

baliatu ditugula guztiok: pintura, argazkigintza, eskultura... Baina, teknika tradizional horiek oso gaur egungo eran lantzen ditugu denok.

Zelan bizi duzu sorkuntza?

Esango nuke inoizko ondoen nabilela sorkuntzari dagokionez. Uste dut, zentzu batean, arteari ondo dator kiola krisi sasoi: gogoetarako, eztabaidarako momentua da. Artearen papera birtentsatzeko unea da: urteotan instituzioak izan dira artearen

erosle nagusiak. Orain, hori bukatu da, eta arteak gizartean zer paper eduki behar duen pentsatzeko aukera daukagu.

Gogoeta hauek guztiak eragiten al dute zure lanean?

Bai, izan ere, gehien interesatzen zaidana artearen alde politikoa da. Objektu sortzaile edo saltzaile bezala ez dut ikusten artista, ezta pertsona berezi bezala ere. Uste dut parte-hartze handiagoa izan beharko lukeela gizarte osoak artean.



R. Castro

Elkarrekin, artelanak taldean erakusteko

Taladrin dream izeneko erakusketak antolatu zuten duela urte batzuk Eibarren, eta joan zen barikutik Durangoko Arte eta Historia Museoa ikusgai dauzkate argazkiko artistek euren lanak.

Artelan bat eman du bakoitzak erakusketak kolektiborako. Gipuzkoarrak dira *Ibillgonia* erakusketak honetan parte hartu duten artista gehienak, baina Fernando de Vicente margolari durangorak ere eroan du bere lan bat erakusketarako.

Urtero afari batean elkartu izan da artista talde hau Deban, eta hitzordu horretatik atera zen Eibarko Portalea aretoan antolatutako *Hiperasia* izeneko erakusketak ere. Oso ondo joan zen erakusketak hura. "Egiten dugun lana elkarrekin aurkezten jarraitzea da daukagun asmoa", azaldu du Fernando de Vicente margolariak.

HITZ
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 18 22:00etan
SEI URTE + LINEA2
KONTZERTUA. Sarrera: 6euro.

URTARRILAK 19 22:30ean
LEHENAKARIS MUERTOS +
PORCO BRAVO. Sarrera: 10-12euro.

URTARRILAK 20 15:00etan
EHKO MUS TXAPELKETA
20 euro bikoteko.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

HAREAZKO IPUINAK

Markeliñe Antzerki Taldea

Urtarrilak 20 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

➤ Aisialdia

➤ GAZTE GARA GAZTE!

Gazteak borondatezko lanetan pertsona ezinduekiko konpromisoa erakusten



Durangoko Gorabide elkarteko aisialdi taldeko parte-hartzaileak.

➤ ANE ELORDI

Ana Basabe eta Irene Egialde Durangoko Jesuitak ikastetxeko ikasleak, *Eskertzak, jaso duguna besteei itzultzea eroaten gaitu* izeneko boluntariotza egitasmoa parte-hartzaile bi dira. Eta Gorabide, adimen urritasuna duten pertsonentzako aisialdi zerbitzua bideratzen duen Bizkaiko elkarteak aukeratu dute gazte bi horiek boluntario lanak egiteko.

Jesuitak ikastetxeak aurrera daraman proiektu honek, hiru atal ditu, formakuntza teorikoa jasotzen dute eta hainbat elkartetako praktikaldiarekin uztartzen dute. Amaieran, memoria bat ere osatu behar dute. Sei orduko formakuntza teoriokoan bolondres idealaren eredu zein izan beharko litzatekeen irakasten diete gazteei, Ana Basabek adierazi duenez.

Gorabide hurrekoa zuten Basabek eta Egialdek, bertako begiraleekin arinagotik harremana zuten, eta horregatik aukeratu zuten bertan aritzea. Gazteak gustura dabilta borondatezko lanak egiten. Irene Egialderen berbetan, "Lagun artean bezala gaude hemen. Niretzako ordu bi direna, Gorabideko adimen urritasuna duen pertsona batentzat askoz gehiago da, eta guretzako ez da inolako esfortzua denbora hori haiei eskaintzea. Askotan konpainia eginda edo haien kontuak entzunda asko pozten dira". Gorabide elkarteko gainontzeko begiraleak ere oso pozik daude gazte hauen parte-hartzearekin. Duela urte bitik begirale lanetan dabilen Miren Aldazabalek azpimarratu gura izan du gazteek gizarteko parte diren

pertsona ezinduekiko duten konpromisoa. Izan ere Durangoko Gorabideko begirale guztiak gazteak dira, eta aurreko urteetan Jesuitak ikastetxeko egitasmoan parte hartu zuten zenbaitek, gaur egun oraingo Gorabiden jarraitzen dute, bolondres lanetan.

Aldazabalek adierazi duenez, boluntariotza bultzatzeko egitasmoak oso urriak dira, eta Jesuitak ikastetxeak egiten duena eredarria da. Halako proiektu gehiagoren beharra dagoela dio Gorabideko begirale gazteak. Izan ere, pertsona askok elkarteko aisialdi ekintzetan parte hartu nahi dute eta begirale nahikorik ez dagoenez, ezin dituzte danak onartu. Gorabideko Durangon duen taldean inguruko herrietako lagunek parte hartzen dute, haien herrietan ez

dagoelako eskaintza hori.

Egialderen ustetan, borondatezko lanak egiten dituzten kopurua urriagoa da krisi garaian, eta adimen urritasuna duten pertsonak gizartetik gehiago alboratzen dira. Bazterketa hori ahalik eta txikiena izan dadin lan egiteko prest daude, eta horregatik etorkizunean ere Gorabiden jarraitzeko asmoa dute gazteek. Jesuitak ikastetxearen egitasmoaren laugarren edizioa da hau. 18 ikaslek parte hartzen dute, eta Aitziber Agirre irakaslea da koordinatzailea. Gorabiden, Astarloa nagusien egoitzan, etorkinak hartzen dituen Jesuiten etxean eta ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleen begirale lanetan dabilta gazteak. Pertsonak arlo akademikoan zein giza eta fedelazioetan hezteko da asmoa.

Begirale nahikorik ez dagoenez ezin dituzte danak onartu

Etorkizunean ere Gorabiden jarraitzeko asmoa dute gazteek

Borondatezko lanak egiten dituztenen kopurua urriagoa da krisi garaian

laguntzaileak



Kirolak

> TXIRRINDULARITZA



Aitor Duran eta Aitor Maiztegi, Berriz Bizikletari Elkarte presidentea eta laguntzailea, hurrenez hurren.

“Munduko Txapelketara joan gura dutenek erakutsi egin beharko dute”

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia jokatu dute zapatuan, Berrizburu inguruan. Munduko txapelketaren atarian, hautatzaileak konbentzitzeko azken aukeretako da parte-hartzaileentzako

> JOSEBA DERTEANO

Berriz Bizikletari Elkarte Aitor Duran eta Aitor Maiztegi buru-belarri lanean dabilta, dena prest egon dadin. Inguru hartan egin diren lanen ondorioz, ikusleek proba hobeto ikusteko aukera izango dutela adierazi dute.

Ziklo-kros lasterketa berreskuratu zenutenetik hiru urte pasatu dira. Urteroko hitzordua egonkortu egin da?

Alex Duran: Baietz uste dugu. Berrizko Udalak ekimenagaz aurrera jarraitzeko interesa erakutsi du. Udala da laguntzaile nagusia, eta eskerrak eman gura dizkiogu eskaintzen digun babesagatik.

Gainera, aurten Bizkaiko Txapelketa ere Berrizen erabakiko da.

A.D.: Egia esanda, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioaren proposamena izan da, eta poztarren onartu dugu. Hori ona da lasterketaren maila handitzeko. Gainera, denboraldia amaitzeko gutxi falta da, eta otsail hasieran Munduko Txapelketa jokatu dute. Horrek esan gura du, selekzioagaz Munduko Txapelketara joan gura dutenek euren hautagaitza aurkezteko azken

aukeretako dela. Gogoan dutiaz Valentziatik ere etorri zirela gazte mailako batzuk. Dena dela, gehienak euskaldunak izango dira. Egunean bertan izena eman daitekeenez, ez da erraza zenbat txirrindulari batuko diren esatea. Master mailetakoa ere asko izango dira.

Master mailek saltsa ematen diote lasterketari, ezta?

A.D.: Giro handia sortzen dute, bai. Gehienak bertoko txirrindulariak dira. Euren arteko lehia sana egoten da, eta ikusleek estimatzen dute haiek eskainitako ikuskizuna.

Berrizburu inguruan parkea eta azpiegitura berriak eraiki dituzte. Zelan eragiten dio horrek ibilbideari?

Aitor Maiztegi: Zirkuituak 2,5 kilometro inguru ditu, eta aldaketa txiki batzuk kenduta, ia zoko berbera da. Parke berriak ba-

du ikusleentzako abantaila bat; zati batean zirkuitua sigi-sagan doa, eta ikusleek tarte horretako ikuspegi zuzena izango dute. Ibilbidea osatzerakoan, tentuz ibili gara. Zonalde berriko berdeguneetan belarra oraindik bigun dago, ipini berria delako, eta bizikletekin gainetik ibiliz gero, hondatu egingo litzateke. Gune horien gainetik ibili beharrean, gurutzatu egiten ditugu. Hemendik urte batzuetara, belarra eta lurra egonkortzen direnean, zirkuituaren parte izan daitezke beharbada.

Zelan definituko zenukete zirkuitua?

A.M.: Arina bai behintzat. Ibilbideko tarterik handiena lur gogorrean zehar doa, bizikleta ez da lokatsetan hondoratzen. Gune batzuetan gogorra ere bada, desnibela pilatzen delako.

Nortzuk ikusten dituzue irabazteko faborito?

A.M.: Gizonetan Aitor Hernandez. Aurten nagusitasun handia erakusten ari da. Egoitz Murgoi-tiok ezin du etorri. Beraz, Ake-tza Peña eta Erlantz Uriarte izan

“

Gizonen elite mailako proba hasi aurretik minutu bateko isilunea egingo dugu Iñaki Lejarreta gogoratzeko”

“

Gizonetan Aitor Hernandez da faborito. Aketza Peña eta Erlantz Uriarte izan daitezke arerio nagusiak”

PROBAKO DATUAK

Eguna: urtarrilak 19, zapatua

Hasierak mailaz maila:

10:00etan: nesken eta mutilen kadete maila.

11:00etan: mutilen gazte maila. Emakumeen gazte maila, 23 urtez azpiko maila eta elitea.

12:00etan: Master 30/40/50 eta 60 mailak

13:00etan: gizonen 23 urtez azpiko maila eta elitea.

Antolatzaileak: Berriz Bizikletari Elkarte, Berrizko Udala eta Txirrindularitza Federazioa

ditzake areriorik indartsuenak. Baina Hernandez beste maila batean dago gaur egun. Emakumeetan Olatz Odriozola da faborito. Gazteetan Aritz Hernandez eta Eneko Corrales bereiztuko nituzke.

A.D.: Aritz Hernandez berriztarra da, etxekoa. Ea zorte ona duen, eta ondo dabilen.

Lasterketa hasi aurretik Iñaki Lejarreta gogoratuko duzue.

A.M.: Gizonen elite mailako proba hasi aurretik minutu bateko isilunea egingo dugu. Bai Aitor (Duran) bai ni bizikletan ibili izan gara, eta ezagutzen genuen Iñaki. Horrelako gertaerak beti dira amorraraztekoak, baina herriar eta ezagun bati gertatzen zaionean are gehiago. Guk beti gogoratuko dugu.

Horrelako gertaerek lehen plannora ekartzen dute segurtasunaren kontua.

A.D.: Denon partetik ipini beharra dago. Txirrindulariek euren bidean joan behar dute, eta auto gidariak errespeturik handienarekin ibili behar dira.

A.M.: Errepideak ez daude txirrindularientzako egoki prestatuta. Gu Alemaniara, Herbehereetara eta Belgikara joan izan gara Munduko Txapelketako lasterketak ikustera, eta paraje haiek bizikletetarako bidegorriz beteta daude. Belgikan, esaterako, bide horietatik ibiltzera derrigortuta daude ziklistak.

A.D.: Gainera, bide bazterrak zikin egoten dira. Errepideak garbitzean zikinkeria alboratu egiten dute, eta erortzeko arriskua areagotu.

Zelan ikusten duzue euskal txirrindularitzaren harrobia?

A.M.: Gu zaparroak ginenean, 200 bat txirrindulari batzen ginen lasterketa bakoitzean. Gaur egun, 30 batzen dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak batuta. Sasoi bateko %20ra ez da helduko gaur egungo kopurua.

> ARETO FUTBOLA

Elorrioko Buskantzen talde nagusiaren familia argazkia liga hasieran. Jon Iglesias

Nagusietatik gazteetara, goi mailan dabil Elorrioko taldea

Talde nagusia, gazteak eta Elorrioko Buskantza C lider daude zein bere mailan; bigarren taldea laugarren dago goiko postuen borrokan

JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Buskantza osatzen duten lau taldeak goi mailan dabilta aurten. Nagusienetik hasi eta gazteenetara. Den-denak. Betidanik leialak izan diren Elorrioko areto futbol zaleek gozatzeko hamaika arrazoi dituzte aurten.

Iaz hirugarren mailatik eskal ligara jaitsi ondoren, talde nagusiari zorrotasuna ezarri

“Esango nuke, entrenatzaile lana baino, psikologo lana egin dudala taldeagaz”

dio Iker Saenz de la Cuesta entrenatzaile berriak: “Taldea gazte eta kalitatezkoa du Elorrioko Buskantzak. Talde lana, serio-tasuna eta zorrotasuna ezartzea izan da nire zeregin nagusia. Esango nuke, entrenatzaile lana baino, psikologo lana egin dudala taldeagaz, batez ere”, azaldu du Saenz de la Cuestak. Lan horren emaitzak begien bistakoak dira. Euskal ligan lider daude; jo-

katutako 13 partiduetatik 12 irabazi eta 22 gol bakarrik jaso dituzte. Asteburuan goiko postuen borrokan dabilen Abadiñoko Lagunen kantxa bisitatuko dute.

Elorrioko Buskantza gazteak ere lider daude. Lehenengo itzuli osoan ez dute partidurik galdu; lau puntuk bakarrik ihes egin diete, berdinketa bigaz. Gainera, emaitza onak ‘tiki-taka’-gaz batera etorri dira.

Elorrioko C-k ere ez daki galtzea zer den; berdinketa bat kenduta, gainerako 10 partiduetan hirun batu dituzte puntuak, eta lehen postuan daude bigarren erregionalean.

Azkenik, Sapuberri lider den lehenengo erregionalean Elorrioko B laugarren dago, igoera apostutik sei puntura.

> TXIRRINDULARITZA

Murgoitiok zilarra jantzi du Espainiako txapelketan

> JOSEBA DERTEANO

Asturiasko Navia herrian jokatutako Espainiako Ziklo-kros Txapelketan bigarren amaitu eta zilarra jantzi zuen Egoitz Murgoitiok (Hirumet taldea) elite mailan. Aitor Hernande-

zek eta biek borroka ikusgarria izan zuten azken itzulira arte. Oraintsu izandako eroriko baten ondorioz, belauna minberatuta zuela jardun zuen abadiñarrak. Bizikleta lepoan eta oinez egin beharreko tarreetan igarri zuen gehien mina.

Pablo Lastra taldekideak, berriz, irabazi egin zuen 23 urtez azpikoan. Hasieratik ihes egin eta, gaur egun, maila horretan onena dela erakutsi zuen.

> PILOTA

Frontenis txapelketa egingo dute Mallabian

Izen-ematea otsailaren 10era arte dago zabalik; iaz Bizkaiko eta Gipuzkoako 36 bikote aritu ziren

> ANE ELORDI

Mallabiko areto futbol taldeak antolatuko duen frontenis txapelketa otsail eta maiatz bitartean jokatuko da. Ligako lehe-

nengo zatia mailaka jokatuko dute, zortzi eta hamar jokalarik osatutako taldeetan banatuta. Parte-hartzaile guztiek zortzi partiduko jokatuko dituzte, gu-

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

Zaparradak

Egunotan ugari izan ditugu eta, pilotari dagokionez, pare bat hilabete behintzat iraungo dute aipaturiko zaparradek. Berriztarraren ekinari buruz ari naiz. Urtearen hasierarekin batera, pozik hartu genuen bizkaitar guztiok, durangaldarrok are gehiago, Pablo Berasaluze eta Ibai Zabala lehen mailako binakakorako hautatuak izan zirela ikusteak. Hilabete igaro da eta bati zein besteari itzelak erortzen ari zaizkio. Ibai oso txukun dabil, baina eskuzko izar nagusienarekin jokatzek, bera jartzen du aurkariaren jomugan. Atzeko koa-droak bilatzen dituzte arerio guztiek, eta ematen du txapelketa guztia berdina izango dela berarentzat; zaparradaz zaparrada. Eutsiko ote du? Nik neuk badut konfiantza berarengan, eta horri, Aimaren jokoa gehituta, aurrefinalista izan beharko lukete. Zaparradei bikain aurre egin dienaren seinale izango da txapelerako borroka horretan bigarren fasean ikusten badugu. Bestelako kontuak bizitzen ari da ‘Pablito’. Bere gorena lau t’erdikoan lortu zuen eta orduko eguzki printzak zaparrada bihurtu dira orain berarentzat. Ez du orain bi hilabete zeukan bizitasunik, ezta argitasunik ere. Logikotzat hartu liteke, beti topera egotea ez baita erraza, baina uneoro %100 eskatzen duen pilotazaleak ez dio barkatzen. Hortik datorzkio kritikak berriztar aurrelariari. Sumatzen denaren arabera, ibilbide zaila izango da berea ere. Lerro hauetatik aupa eta animoa bie!

txienez. Izen-ematea otsailaren 10era arte dago zabalik (669 028 718 telefonoan). Izena emateko, zortzi euro ordaindu behar da. Horrez gainera, jokatutako partiduko bakoitzagatik bazkide ez direnek euro bi ordaindu behar dute, eta bazkideek euro bana.

2012an antolatu zuten txapelketak Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herritako 36 parte-hartzaile batu zituen Mallabiako pilotalekuak.

> XAKEA

Igo berria den arren, Abadiño onenekin egoten saiatuko da

Iaz Euskal Ligara igo ziren. Ibon Martin entrenatzailearen esanetan, “aurten helburua ez da multzoko oilarrak izatea, igotzeko borrokan egotea baino”



Partida Azkarren Euskal Zirkuitua irabazi du Abadiño Xake Taldeak.

> JOSEBA DERTEANO

Iazko denboraldia gogoangarria izan zen Abadiño Xake Taldearentzat. Hiru taldeek igoera lortuzuten. Joanen asteburuan hasitako denboraldiari begira, mailari eustea dirudi helburu-

rik logikoa, baina abadiño-rrak ez dira horregaz konformatzen. Taldeak badu maila (Sarralde anaiak, Alain Prieto eta Humberto Odriozola, besteak beste) eta hautsik harrotu bari-rik, baina igoera bilatuko dute-

la adierazi du Ibon Martin Abadiño Xake Taldeko entrenatzaileak: “Iaz multzoko oilarrak ginen. Aurten badakigu talde indartsuen kontra jardungo duguna, baina goian egotea dugu helburu”.

Badituzte arrazoiak itxaropentsu egoteko. Seigarren bidez irabazi berri dute Partida Azkarren Euskal Zirkuitua. Jokaturako 20 jardunaldietatik 10 irabazi dituzte, eta Espainiako azpitxapeldun geratu den Torre-lavega taldearen aurretik geratu dira.

Elorrioko Zaldi Baltzako nagusien taldeak —maila gorenean ari da— mailari eustea du helburu, baina lehenengo jardunaldian Barakaldo 4-0 xehatu on-

Zaldi Baltzak 4-0 xehatu du Barakaldo lehen partiduan, eta zeresana eman dezake aurten

doren, goikoak estutzeko ahalmena izan dezaketela dirudi. As-teburu honetan Portugalete bisitatuko dute. Beti ibili dira pattal arerio horren kontra. Arrazoi batengatik edo besteagatik, burumakur bueltatu izan dira. Beraz, aurten benetan zer eman dezaketek ikusteko azterketa aproposa izango da.

Azkenik, Durangoko Larra-soloetako lehen taldearen erronka lehenengo erregionalari eustea izango da. Lehen jardunaldian 3-1 galdu zuten Portugaleterekin aurka.

> MENDIA

Auzorik auzo irtengo dira Abadiñon, 27an

Gerediagako Hamabi Harri Elkartek ‘Auzorik auzo’ ibilbidea antolatu du urtarrilaren 27rako

> JOSEBA DERTEANO

Urteroko ohiturari eutsiz, Abadiño Gerediagako Hamabi Harri Elkartek ‘Auzorik auzo’ irteera antolatu du urtarrilaren 27rako. 09:00etan ekingo diote ibilbideari Salbadore ermitan. Ereñatik eta Erremoltxunetik igaro eta errepede nagusitik San Faustora jaitsiko dira.

Handik, berriro Abadiñorantz abiatuko dira. Lebarioko industriagunetik Zalloizera heldu eta Gazteluko ur depositura arte igoko dira. Han galtzada hartu eta Arrankurri, Santikurutz eta Untzilla igaroko dituzte. Mendilibarretik pasatu eta galtzadatik Txanportan amaituko dute ibilaldia, otordu batekin.



Urtero jende askok parte hartzen du ibilaldian.

> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala-Getxo
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA**Elorrio-Loiu**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**Berriz-Gatika B**

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

HIRUGARREN ERREGIONALA**Zaldia B-Iberlanda**

· Domekan, 16:30ean, Solobarrian

Iurretako B-Elorrio B

· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Elorrio-Peña Athletic Sestaotarra**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

Iurretako-Berango

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA**Abadiño Lagun-Elorrioko Buskantza**

· Domekan, 11:45ean, Berrizko kiroldegian

Kurutziaga-Kukuia Etxebarri

· Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian

MAILA GORENA**Sasikoa B-Zorrotzako**

· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

Presion Break-Ibaizabal

· Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA**Gu Lagunak-Beseka**

· Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA**Racing Tolosto-Elorrioko C**

· Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA (gizonak)**Tabirako Baque-Bide Bide Donosti**

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO MAILA (emakumeak)**Tabirako Baque-Dermitek Getxo**

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA**Julza-Zaldia-Amets Ederra**

· Zapatuan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

> ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA**Durango Rugby Taldea - Cart A Coruña**

· Domekan, 12:30ean, Arripausuetan

EUSKAL LIGA**Elorrio Parra Taberna - Uni Bilbao**

· Zapatuan, 16:30ean, Elorrioko errugbi zelaietan

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko eta asteburu menuak - Delikatessena - Ardoteka
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

momotxo
taberna

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 94 681 10 06

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urtarrilaren 24an, 20:00etan
Durangoko San Agustinen

Hil arte bizi

Adiskidetasunaren mugen inguruko hausnarketa da Txalo taldearen 'Hil arte bizi'. Gertakari batek kolokan jarriko du Nacho, Angel eta Mariaren arteko adiskidetasuna.



:: BERRIZ

Urtarrilaren 20an, 17:00etan
Txintxaun Kolektiboa-ren
The Full Monty, Olakueta plazan.

Urtarrilaren 25ean, 18:00etan
Behibi's taldearen
Bueltaka,
Kultur Etxean.

:: DURANGO

Urtarrilaren 20an, 18:00etan
Markeliñe taldearen
Hareazko ipuinak,
San Agustinen.

Urtarrilaren 24an, 20:00etan
Txalo Producciones-en
Hil arte Bizi, San Agustinen.

:: ELORRIO

Urtarrilaren 20an, 17:00etan
Gorakada taldearen
Printzea eta ahatea,
Arriolan.

:: ZORNOTZA

Urtarrilaren 18an, 21:00etan
Markeliñe taldearen
Makinista,
Zornotza Aretoan.



:: DURANGO

Otsailaren 3ra arte,
Ibillgonia erakusketak kolektiboa,
Arte eta Historia Museoa.



:: DURANGO

Urtarrilaren 18an, 22:00etan
SeiUrte + Linea 2,
Plateruenean.

Urtarrilaren 19an, 22:00etan
Lendakaris muertos + Porco Bravo,
Plateruenean.

:: ELORRIO

Urtarrilaren 19an, 22:00etan
Pink Tones taldearen
Pink Floyd show,
Arriolan.



:: DURANGO

Urtarrilaren 18an, 20:00etan
Maidar Galarza kontalariaren
Helduentzako ipuinak,
Bibliotekan.

:: ZALDIBAR

Urtarrilaren 25ean, 17:30ean
Rosa Martinez kontalariaren
Etxean goxo,
udal liburutegian.



:: ABADIÑO

Urtarrilaren 20an, 12:00etan
San Anton jaiko meza, eta
ondoren, **dantzari eta txistularien emanaldia**,
Urkiolako Santutegian.

:: BERRIZ

Urtarrilaren 18an, 19:30ean
Sagardotegi ibiltaria eta eromeria trikitilariekin,
eta ondoren, **odoloste jana**,
Olakueta plazan.
21:30ean **San Antonio VII. pilota txapelketaren finalak**.
Ondoren, **Bertsu pilota**,
Olakueta frontoian.
23:00etan **Alerta + Keepsake**
kontzertua, Gaztetxean.

Urtarrilaren 19an, 10:00etatik
14:00etara **Berrizko ziklo-kros proba**, Berrizburun.
14:30ean **bazkaria eta bertso-flamenko emanaldia**,
Gaztetxean.
18:30ean **karro poteoa**,
Gaztetxean hasita.
17:30ean **Potxin eta Patxin pailazoak**,
Olakueta plazan.

21:00etan **Dj Bull**, Gaztetxean.
19:00-22:00/00:00-01:00
Erromeria Haitzamazagaz,
Olakueta plazan.

:: IURRETA

Urtarrilaren 18an, 21:00etan
Donien Atxa altzatzea,
eta ondoren, **txokolatada**,
Bakixan.

Urtarrilaren 19an,
11:30ean **Tiro txapelketa**,
21:00etan **Bakailau txapelketa**,
Bakixan.

Urtarrilaren 20an, 11:30ean
Meza, ondoren, **bertsolari gazteen saioa**,
Bakixan.
17:00etan **briska txapelketa eta dantza emanaldia**,
Bakixan.



:: DURANGO

Urtarrilaren 23an, 17:00etan
Importancia de las expectativas. El efecto Pigmalion,
Amankomunazgoaren Atxondo aretoan.



:: BERRIZ

Urtarrilaren 23an, 20:00etan
Morir de dia, Kultur Etxean.



:: DURANGO

Urtarrilaren 19an, 09:00-14:00
'Emozioen erregulazioa Tai Chi-aren bitartez',
Dharananda Yoga Zentroan.
Informazio gehiago:
'www.dharananda.com'



:: DURANGO | ZUGAZA

1. aretoa: Lincoln

Zuzendaria: Steven Spielberg

- barikua 18: 19:00/22:00
- zapatua 19: 19:30/22:30
- domeka 20: 19:30
- astelehena 21: 19:00/22:00
- martitzena 22: 20:00

2. aretoa: Django desencadenado

Zuzendaria: Quentin Tarantino

- barikua 18: 19:00
- zapatua 19: 19:00/22:00
- domeka 20: 17:00/20:00
- astelehena 21: 19:00/22:00
- martitzena 22: 20:00

UMEEN ZINEMA

1. aretoa: El alucinante mundo de Norman 3D

Zuzendaria: Sam Fell

- zapatua 19: 17:00
- domeka 20: 17:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

Hasta la vista

Zuzendaria: Geoffrey Enthoven

- domeka 20: 20:00
- astelehena 21: 20:00

:: ZORNOTZA

Lincoln

Zuzendaria: Steven Spielberg

- zapatua 19: 19:00/22:30
- domeka 20: 20:00
- astelehena 21: 20:00

UMEEN ZINEMA

El alucinante mundo de Norman 3D

Zuzendaria: C. Butler eta S. Fell

- zapatua 19: 17:00
- domeka 20: 17:00

ZINEFORUMA

Barrura begiratzeko leihoak

- martitzena 22: 20:00

URTARRILEKO AGENDA



18-27	BAKIXAKO JAI BATZORDEA Donien Atxa, txokolatadak, makailau txapelketa, tanborrada, meza, bertsolariak, erromeria...
19,20,26,27	IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA 10:00 Hainbat ibilbide (65-72 km).
19	ZALDAI MENDI TALDEA 08:00 Kostatik mendi irteera. Orio-Orio.
19,26	EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E. 19an, 10:00 Bizkaiko Challengearen proba, Trapagan 10:00 Bizkaiko Ciclo-Cross txapelketa Berrizen 26an, Bizkaiko txapelketa, Berrizko pista
19,26	IURRETAKO KIROL TALDEA , 17:00etan 19- lurretako-Erandio / 26- Somorrostro-lurretako
21,22,23 25,29	IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA 21ean, 18:15 Emakumeen literatur tailerrak 22an, Irakurketa kluba, gaztelaraz 23an, Irakurleen txokoa, euskaraz 25ean, haur eta nagusientzako ipuin kontalariak 29an, Haurren irakurketa kluba
25	X. LITERATUR LEHIAKETA Lanak 2013ko urtarrilaren 25a arte aurkeztu daitezke



Urtarrilaren 19an, 22:00etan, Plateruenean

LENDAKARIS MUERTOS

Barakaldoko Porco Bravogaz joko du, bihar, Platerueneko kontzertuan, Lendakaris Muertos Iruñeko taldeak. Iazko otsailean aurkeztu zuen 'Crucificados por el antisistema' ekarriko dute iruñarrek Durangora.

Denborapasak

1

				5	4	
		3	7	8		9
9	1					
8	9		1	7		
			8			5
		6	5	2	9	3
1	3		4			5
7				2	1	3
	6			1	4	8

2

	3			6	2	
		6	8		4	
	2					
	6	2		3	9	
3	2	5				
			9		7	5
9	7		3		6	
						4
1	3	9	5			

ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 17:00ak arteko epea



> Hilaren 21ean eta 28an bi artista hauek urteak beteko dabez. Zorionak zuen pisukideen partez! Juerga bategaz ospatuko dogu!



> Zorionak **Aratz**, urtarrilaren 13an 5 urte bete zituen. Pastel ederra egin gendun ospatzeko. Musu bat etxekoan partez!



> Zorionak **Txarli!** 2 pikatxiki, 5 kaña, 2 krianza eta San Miguel bat botillan! Atzo zure urtegunean ondo pasa izana espero dugu!



> Urtarrilaren 20an **Izarok** urteak betetzen ditu. Oso ondo pasa maite zaituen jendearekin eta mosu potolo bat. Zorionak danon partez!



> Gaur **Erik Gonzalez Valverde** 5 urtetxo betetzen ditu. "Non dago pastela" z gogoratzen gara! Musuak lagun eta familiaren partez!



> **Nagore** 11 hamar urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak familia osoaren partez! Segi horrelako jatorra izaten!



> **Haizeak** urtetxo bi egingo dauz domekan eta txokolatada batekin ospatuko dugu. Txokolatzeke musu potolo bat danon partez!



> **Udane Ariznabarretak** urtarrilaren 6an eta **Enaitz Iñarrek** atzo, urtarrilak 17, 5 urte bete zituzten. Atzo ondo pasatuko zuten ospakizunean. Hain alai eta lagun izaten jarraitu! Zorionak familien partez!



> **Miren**, urtarrilaren 19an 15 urte beteko dituzun honetan, zure begietako irribarrea bizitza delako munduko zoriontasuna opa dizugu.



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

> Zorionak Amets! Hamabostean behin zoz egin dugun tarta zuei egokitu zaizue. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenen jaso dezakezue, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga 9an.

BOTIKAK

- BARIKUA, 18**
09:00-09:00
• **SANROMA** (URIBARRI 5 - DURANGO)
- ZAPATUA, 19**
09:00-09:00
• **UNAMUNZAGA** (MURUETATORRE 2C - DURANGO)
09:00-13:00
• **SANROMA** (URIBARRI 5 - DURANGO)
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
• **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO)
• **SAGASTIZABAL** (ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
09:00-14:00
• **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)
- DOMEKA, 20**
09:00-09:00
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
- ASTELEHENA, 21**
09:00-09:00
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)
09:00-22:00
• **LOPEZ DE ARETXAGA** (TORRESOLO 4 - ABADIÑO)
- MARTITZENA, 22**
09:00-09:00
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)
- EGUZTENA, 23**
09:00-09:00
• **MUGICA** (ANDRA MARIA 9 - DURANGO)
- EGUENA, 24**
09:00-09:00
• **NAVARRO** (ARTEKALE 6 - DURANGO)
09:00-22:00
• **EGAÑA** (BEKOETXE 4 - ZALDIBAR)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS DEIAK 112
GURUTZE GORRIA 94 681 09 49
OSAKIDETZA 94 600 72 00
ERTZAINZA 94 466 93 00

GARRIAOK

- EUSKOTREN 902 54 32 10
BIZKAIBUS 94 448 40 80
PESA 902 10 12 10
CONTINENTAL AUTO 945 286 466

TAXIAK

- ABADIÑO 94 681 44 70
MATIENA 606 459 988
DURANGO GELTOKIA 94 681 10 01
ELORRIO GELTOKIA 94 682 00 40
J.L. URIARTE 670 402 002
I. ESTEBEZ 670 678 273
M. GALEANO 670 409 330
IURRETA 94 620 15 65
TAXI AUZUNEA 688 618 690
BERRIZKO AUZO TAXIA 620 022 800

EGURALDIA

6° 9° ZAPATUA ☁️

3° 11° DOMEKA ☁️

5° 9° ASTELEHENA ☀️

3° 9° ASTEARTEA ☁️

UDALAK

- ABADIÑO 94 621 55 30
ATXONDO 94 682 10 09
BERRIZ 94 682 45 84
DURANGO 94603 00 00
ELORRIO 94 658 27 12
GARAI 94 681 63 93
IURRETA 94 620 12 00
IZURTZA 94 681 35 48
MALLABIA 943 17 14 61
MAÑARIA 94 681 89 98
OTXANDIO 945 45 00 20
ZALDIBAR 94 682 70 16

UDALTZAINGOA

- ABADIÑO 94 621 55 33
BERRIZ 94 682 40 36
DURANGO 94 603 00 00
ELORRIO 94 682 02 18
IURRETA 94 620 08 88

AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matienea)
Eguaztzenetan 10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga 0,80 euro
Porruak 1,80 euro/tx
Azenarioak 1,50 euro/tx
Azela 2 euro/kg
Aza 2 euro/kg
Koliflorra 3 euro/kg
Kalabaza 2,20 euro/kg
Kiwia 3 euro/kg
Tomate kontserba 3,90 euro
Arrautzak 3,80 euro/dz
Idiazabal gazta 17 euro/kg
Espeltazko ogia 3,60 euro

SUDOKUEN SOLUZIOAK

7	2	8	9	5	6	3	4	1
4	3	6	1	7	8	9	5	2
1	9	5	2	3	4	7	8	6
5	7	2	6	9	3	4	1	8
6	1	4	7	8	5	2	6	3
8	6	3	4	1	2	5	9	7
6	5	7	3	4	1	8	2	9
3	4	1	8	2	9	6	7	5
2	8	9	5	6	7	1	3	4



8	7	4	1	3	6	2	9	5
3	9	1	2	5	8	4	6	7
2	5	6	7	9	4	8	3	1
1	8	3	6	2	5	9	7	4
5	6	9	4	8	7	1	2	3
4	2	7	3	1	9	6	5	8
6	3	8	5	4	2	7	1	6
1	9	2	1	8	7	3	5	4
4	7	5	6	1	9	3	8	2



Bidai handiak deskontu handiak

Islandia 735€

Aste santua. 5 egun / 4 gau. Center Arnarhvoll 3* hotela. Gosariak barne. Irteera Bilbotik.

Tasak barne

India 1284€

Urria - martxo. 8 egun 6 gau. Lehenengo kategoriako hotela. Gosariak barne. Irteera Bilbotik.

Tasak barne

Bali 1530€

Urria - martxo. Ayodya Resort 5* hotela. 8 egun / 5 gau. Gosariak barne. Irteera Madriletik.

Tasak barne

Isla Mauricio 1445€

Apirila - ekaina. 8 egun / 5 gau. Le Mauricia 4* hotela. Dena barne. Irteera Bilbotik.

Tasak barne

Tailandia 1490€

Maitza - Azaroa. 12 egun / 9 gau. Hotelak programaren arabera. Irteera Madriletik.

Tasak barne

China 1423€

Martxoan. 8 egun / 6 gau. Hotelak programaren arabera. Irteera Bilbotik.

Tasak barne

Azken ordua

Lanzarote 645€

Maiatza. Beatriz Playa 4* Hotela. 8 egun / 7 gau. Dena barne. Irteera Bilbotik. 55 urtetik aurrera.

Tasak barne

Budapest - Viena - Praga 999€

Maiatza - ekaina. 3*/4* Hotelak programaren arabera. 8 egun / 7 gau. Irteera Bilbotik.

Tasak barne

Mediterraneotik Itsas bidadia 498€

Maiatza. Grand Holiday Itsasontzia + busa. 8 egun / 7 gau. Mantenu osoa edariekkin.

Ontziratze-tasak barne

Irten eta gozatu

Urdaibai 50€

Ibaigune Hotela*. 2 egun + gau 1. Ostatua bakarrik. Bonboiak gelan eta late check out-a barne. Estutxe bakoitzeko prezioa (bi lagunentzat).

Kantabria 100€

La Venta de Quijas Hotela. 3 egun / 2 gau. Gosariak barne. Cava-botila eta bonboiak gelan barne. Estutxe bakoitzeko prezioa (bi lagunentzat).

Asturias 150€

Langreohotel Hotela 4*. 2 egun / gau 1. Gosariak barne. Afari berezi erromantikoa barne. Estutxe bakoitzeko prezioa (bi lagunentzat).

Elurra guztiontzat

Andorra Grandvalira 250€

Segle Hotela XX. 5 gau + 4 eguneko forfaiata. Gosariak barne. Urtarrilean eta otsailean. (Pertsonako prezioa).

EROSKI bidaiak

viajeseroski.es

Anetsetan? Egizu legan!





“Amamak umezaroa han pasatu zuenez, oso berezia da Otxandio”

Otxandioko bonbardaketan bere amamak hiru urte zeuzkan; hark kontatutakoak rap doinura ekarri ditu

> AMAIA UGALDE

Otxandioko Udaletik heldu da albistea Anbotora: Alacanteko gazte batek Otxandioko bonbardaketaren inguruko abestia sortu du. Pablo Vicedo da bera, Maitene Trapero Ajuriagerraren iloba. Trapero Alacanten bizi da orain, baina jaiotzez Otxandiokoa da, eta umetan bonbardaketa bizi izan zuen. Amamaren ahotik behin baino gehiagotan entzundakoak rap doinuetara ekarri ditu Vicedok. Telefonoz deitu eta pozik hartu ditu Durangaldek egindako galderak.

Zelakoa izan da zure amamaren bizimodua?

Gure amama Otxandion jaiotzen, eta hartu-eman berezia zeukan bere izekoagaz. Izekok asko zaintzen zuen, eta gure amamak kariño berezia zion. Baina izeko bonbardaketan hil zen, eta amama ume-umea bazen ere, gorroto berezia eduki du harrezkero. Gerora, bikotekidea topatu zuen gure amamak, Murtziakoa. Madrilen egon ziren bizi izaten, eta geroago, Alacantera joan ziren.

Zenbat urte zituen amamak bonbardaketan?

Hiru urte baino ez zituen, oso txikia zen. Baina hain txikia izanda, hain gauza handi bat bizitza... Txarto pasatu zuen gainera, bere aita preso eduki zutelako, zeuzkan ideiatatik, eta fusilatua izateko zorian egon zen. Min hori sortu zutenekiko gorrotoa handitzen du horrek guztiak. Nire ustez, bonbardaketa Espainiako gerra zibilaren hasiera izan zen, bai eta Biga-

rren Mundu Gerraren hasiera ere. Ordura arte ez zen halakorik egon, eta Otxandion esperimentatu zuten lehen aldiz bonbardaketekin. Gerora beste sarraski batzuk egiteko balio izan zuten Otxandiokoak.

Mantendu al duzue hartu-emanik Otxandiogaz?

Bai. Badauzkat bigarren lehen-gusuak-eta han, eta udan Otxandiora joateko ohitura daukagu. Amamak bertako istorioak kontatzen dizkit, eta berak umezaroa han pasatu zuenez, oso berezia da niretzako Otxandio.

“

Min egiten didaten gauzak kritikatzeko ditut abestietan, eta Otxandion gertatutakoa kontatu gura nuen”

Noiz bururatu zitzaizun abestia sortzea?

Poesia eta rap munduan duela lau urte inguru hasi nintzen. Abesti batzuetan min egiten didaten gauzak kritikatzeko ditut eta Otxandion gertatutakoa ere kontatu gura nuen. Datu bila hasi nintzen, ez nuen gura nik buruan neukan ideia bakarrik kontatu gura. Niretzako berezia da gure amamaren izebak egun hura zelan bizi ahal izan zuen idaztea. Jendeak istorio hori ezagutzeko gurako nuke.

Gustatu zaio abestia amari?

Hori izan da poztasunik handiena. Emozioaren emozioagaz negar anpulu bat ere irten zitzaion, eta berari abestia gustatzea eta berak abestia egin izana eskertzea, hori izan da niretzako gauzarik onena.

Rapak adierazi gura duzuna esatea errazten dizu?

Pentsamenduak barruan gorde eta erregatzen ibili beharrean, norberaren barruak husteko balio du. Boligrafo bat hartu eta paperean sentitzen duzun moduan idazterakoan, lasaiago sentitzen zara.

Bazabiltza musika ibilbidetan pausoak ematen?

Maketa bat grabatu dut, eta Alacantetik banatzen hasi naiz, baina beno, jendeak pixka bat ezagutu arte... Bide luzea daukat oraindino. Oraingoan, Otxandiori buruzko abestia egitea bera oso garrantzitsua izan da niretzat.



Leku bakarra

Deitu iezaiozu Laila, deituiozu Aya gura baduzu. Neskato bat da, nerabea esan beharko nuke, hamahiru urte ditu eta. Bere herritik atera dute ikasturte erdian. Familiak Euskal Herrira etortzea erabaki du, etorkizun hobe baten bila ustez.

Hemen dago, arabieraz egiten du berba; frantses askorik ez. Eskolan, irakasleak gozo hartu du, baina zelan dagoen ere ezin galdetu, ezin elkar ulertu. Ordenagailua eskaini dio. Keinuka, zeozer idatz dezala eskatu dio; arabieraz, nahi duena... Neskatoak zerbait idatzi du grafia arrotz horretan.

Irakasleak testua hartu du. Zer idatzi ote du neskatoak? Laguntza eske ote dabil? Imajinazioa dantzan jarri du. Akaso, esan ezin duen zerbait da. Sekreturen bat agian. Zer daki! Hitzartutako ezkontza batetik ihes egin gurako du; edo, agian, aita-amak dira ihesean dabilzanak, zeozer ezkutatu ote?

Irakasleak lagun arabiar bati bidali dio testua itzul dezan. Zain dago noiz jasoko ote duen posta, neskatoaren sekretua noiz deskubrituko zain. Ordenagailua ixiotu du; mezurik ez.

Eta estututa badago? Edo premiazko zerbait behar bado neskatoak?

Azkenean heldu da mezua. Neskatoak lau nebarreba dituela dio, baita lagunak ere. Bere herria asko maite duela ere idatzi du, harro dagoela bere herriaz, faltan botatzen duela, hara noiz itzuliko zain dagoela, hura dela munduan bere leku bakarra.

Ez dago sekreturik, ez dago nobelarik. “Zer uste zenuen ba?” pentsatu du irakasleak. Neskato bat da, nerabea esan beharko nuke. Deitu iezaiozu Lorea, deituiozu Nahia gura baduzu.





INMOBILIARIA SAN FAUSTO, S.A.
parte har ezazu zozketan

PROMOZIO BERRIA TRAÑA-ERROTAN (Maliena)
2 eta 3 logelako udal etxebizitza tasatuak
174.600 eurotik aurrera

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00



Izen-ematea
2013ko
otsailaren
1a arte

Informazio bulegoa obran bertan

www.sanfausto.es